

Suradesako Administrazio Kontseiluak 2023ko martxoaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengoa jaso zen:

6.- Berreskuratze-, eraldatze eta erresilientzia planeko (PRTR) jarduerak gauzatzeari buruzko konpromiso adierazpena Next Generation Funtsak kudeatzeko eskakizun gisa.

Berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planeko (PRTR) jarduerak gauzatzen dituzten erakundeek Next Generation Funtsak kudeatzeko eskakizun gisa konpromiso-adierazpena sinatu behar dute non, 2. osagaien zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketaren garapenean – eraikin-parkea birgaitzeko eta hobetzeko jarduketak sustatzea, hiriguneetan zein landa-eremuetan –, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko estandar zorrotzenak ordezkatzeko dituen erakundearen konpromisoa adierazten dutela, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta antzemateko beharrezko neurriak hartuz, eta, hala badagokio, atzemandako ez-betetzeak dagokien agintariei jakinaraziz.

Horrez gain, PRTRren edukiari jarraiki, konpromisoa hartu behar du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko («DNSH» ingelesezko siglengatik «do no significant harm»), Plan horren esparruan egindako jarduerak gauzatzeko, eta adierazi behar du ez duela finantzaketa bikoitzik, eta, hala badagokio, ez dakiela bateraezintasun-arriskurik Estatuko laguntzen araubidearekin.

Hori horrela, Iker Urbinak Berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planeko (PRTR) jarduerak gauzatzen dituzten erakundeek Next Generation Funtsak kudeatzeko eskakizun gisa konpromiso-adierazpena sinatzea proposatzen du.

Iker Urbinak proposatutakoa kontutan izanda administrazio Kontseiluko kideek aho batez ZERA ERABAKI DUTE:

Lehena.- Berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planeko (PRTR) jarduerak gauzatzen dituzten erakundeek Next Generation Funtsak kudeatzeko eskakizun gisa konpromiso-adierazpena sinatzea.

Bigarrena: Lehendakariari baimena ematea behar diren agiriak sinatzeko.

Hirugarrena: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari jakinaraztea.

Arrasaten, 2023ko martxoaren 31ean

Zuzendariak
Izpta.: Iker Urbina